

Europar Batasuna EZ ZAITUGU NAHI, EZ ZAITUGU BEHAR!



0. SARRERA

Dokumentu honek Europa eta Europar Batasuneko egungo egoera aztertzea du helburu. Izan ere, Europa zaharreko kapitalaren egitura nagusia krisi betean murgildu da, eta horren arrazoiak eta adibideak landuko ditugu.

Hasteko, Europar Batasunaren jatorriaz mintzatuko gara, eta kapitalarekin eta burgesiaren klase-intereseekin duen lotura hertsia ikusiko dugu. Ondoren, Europar Batasunak eta haren baitako Estatuak azken krisi ekonomikoari nola erantzun dioten aztertuko dugu, barne- eta kanpo-politikari erreparatuz. Azkenik, gaur egun bloke ideologiko historikoek zer jokabide duten analizatu, eta ondorio eta proposamen batzuk aurkeztuko ditugu.

Hala, eskuartean duzuen txostenaren bitartez, Europar Batasunaren inguruko eztabaida sustatzea nahi dugu. Hain zuzen ere, ezinbestekoa delako Euskal Herrian hainbeste eragiten digun instituzioaz mintzatzea, gure ingurua aldatu ahal izateko eta gaurdanik hartu beharreko jarrerak eta posizioak zehazten joateko.

Askapena

Euskal Herrian, 2017ko ekainaren 1ean



1. Kapitalismoa, inperialismoa eta Europako instituzionalitatea



Europak Ozeano Atlantikora eta Artikora irteera edukitzeagatik eta Afrika kontinentearen mugakide izanagatik (Mediterraneo tartean) kokapen estrategiko garrantzitsua duen arren, Asia kontinente erraldoiaren mendebaldeko adar soil bat bezala har daitekeen eremu geografiko txiki bat da. Hala ere, arrazoi historikoak bitarteko, Europa eremu geografiko soil bat baino zerbait esanguratsuagoa bihurtu da. Europa hitzak espazio politiko eta ekonomiko oso bat izendatzen du, haren lurraldea ez ezik planeta osoa ere baldintzatuko duten errealitateen sorleku izan dena: kapitalismoaren eta inperialismoaren jatorri den Europa.

Globalizatu eta hegemoniko bihurtu den kapitalismoak jatorri zehatza du: Mendebaldeko Europa. Hain zuzen ere, indartzen ari zen sektore burges boteretsuaren interesei erantzuten zieten bi oinarritzko mekanismo hertsatzaile indarrean jarri ondoren jaio zen, eta ez gutxiengo boteretsu horrek aurrezteko izan zuen gaitasun zorrotzarengatik eta austeritatearengatik, esan ohi diguten moduan.

Lehen mekanismoa baliabideak konfiskatzea izan zen, Europako herri langileei lanerako bitartekoen jabetza masiboki kentzea, alegia. Horretarako, haren tresna politiko nagusiaren laguntza mugagabea izan zuen: Estatuarena. Egitura hark hainbestetan neutrala zela aldarrikatu arren, indartzen zihoan burgesiak eraiki zuen Estatu modernoa, bere interesak babesteko beharrezko tresna politiko gisa. Gaizki deituriko *Estatu-nazioak*, egun ezagutzen ditugun moduan, burgesiaren

beharretatik abiatuta diseinatu ziren; metaketa-prozesurako beharrezko zituzten legeak aplikatu ahal izateko, lurralde-marko bat mugatzea izan zen haien helburua. Beraz, herrien eta herritarren lepotik ezarri ziren bai lurraldearen *mugak* bai instituzioaren *funtzioa*, ekoizpen kapitalista inposatuz, bortxa fisikoaren eta ideologikoaren bitartez: batetik, esplotatzeko beharrezko lan-indarra sortzeko herritarren gehiengoaren lan-tresna guztien jabetza kenduz, eta bestetik, prozesuaren buru zen burgesiaren negozioak ondo garatzeko nazio, kultura, hizkuntza eta politika homogeenak ezarriz.

Kapitalismoaren sorrerarako bigarren mekanismo hertsatzailea, berriz, Europako potentziek herrialde periferikoen aberastasunak arpilatzea eta ebastea izan zen. Hain zuzen ere, Europako ekoizpen kapitalistaren markoa hasiera hasieratik nazioartean garatu da, hau da, sortzez izan du nazioartea ustiatu beharra. Europa bi prozesuren motor eta onuradun nagusi izan da: batetik, XVIII. mende amaieran eta XIX. hasieran industrian lehen jauzi teknologikoak eman ahal izateko beharrezko kapital kopuru handia metatzeko prozesuarena, nagusiki politikoa eta merkataritzan oinarritua izan den ziklo baten bitartez (kolonialismoa, kapitalismoaren lehen fasea); eta bestetik, merkataritzan eta ekoizpenean oinarritutako matrizea bihurtzeko prozesuarena (inperialismoa, kapitalismoaren fase gorena). Horrela hegemonizatu zuten Espainiako inperioak, Holandakoak, Frantziakoak eta Britainiakoak mundu mailako egitura kapitalista, XX. mendearen erdi aldera arte.

1.1. Europar Batasuna: kontraofentsiba neoliberalaren tresna estrategikoa

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, Europako eremu ekonomiko eta politikoa koordinatzeko jauzi kualitatiboa emateko beharra ikusi zen. Europako potentzia kapitalistak barne-egoera konplexuan murgildu ziren, ekonomikoki galera handiak izan zituzten eta politikoki, berriz, oso ahul zeuden. Kanpo-egoerari zegokionez ere, ardatz faxista garaitu zuen potentzia, Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna, munduko ezkeraren erreferente indartsu bilakatu zen. Testuinguru kaltegarri hari erantzun estrategiko bat emateko asmoz hasi ziren ematen Europako eremu instituzionala sortzeko urratsak. Urrats haiek, batetik, Europako burgesiek beren interesak eta rol dominatzailea babesteko eman ziren; eta, bestetik, Estatu Batuak kapitalismoaren mundu mailako potentzia hegemoniko bihurtzea ahalbidetzeko eta Europako blokea SESBren aldera gerturatzea saihesteko. Hala, Europa ekonomikoki eta militarki blindatzeko, hainbat planteamendu estrategiko jarri ziren martxan, hala nola Marshall plana –sorrera-prozesua diruz laguntzeko– eta NATOren sorrera, 1949an. Horrela hasi zen Europar Batasuna forma hartzen, 1957tik aurrera, Erromako Itunaren bitartez Europako Ekonomia Erkidegoa (EEE) eta Energia Atomikoaren Europako Erkidegoa (Euratom) egiturak sortuz.

Esan bezala, marko instituzionalaren sorrera-prozesuko lehen urratsak gerraostean eman ziren, eta garai hartako indar-korrelazioaren eraginez, herri sektoreei nolabaiteko babes soziala bermatzen zien Estatu-kapitalismo bat (ongizate-estatua) garatu behar izan zuen sektore dominatzaileak. Baina, bigarren faserako, Europako instituzionalitatea finkatzen hasi zenerako, burgesiak gogor ekin zion ofentsiba neoliberalari, 70eko krisiaren ondoren. Hain zuzen ere, esplotazio eta dominazio kapitalistaren sistemaren berrantolaketa-marko horrek ematen dizkigu egungo Europar Batasunaren funtzionaltasuna ulertzeko gakoak.

Bi proiektuak hain errotuta zeudenez, Europa mailan politika neoliberalak ezin izan ziren egiaz aplikatzen hasi 1992ko Maastricheko ituna indarrean jarri arte.

Itun hura da egun ezagutzen dugun Europar Batasunaren oinarri ekonomiko eta politikoa. SESBek luze iraun izanak European neoliberalismo basatiaren lehen fasea batzuk nahi bezain azkar martxan jartzea oztopatu zuen; baina behin SESB deseginda, nahikoa baldintza objektibo zituzten gerraosteko itun interklasistak sustatutako birbanaketa-politikak eteteko. Orduan adostutako bateratze-irizpideek, oraingoan ez *inter* baizik *intraklasistak*, ekonomia kapital finantzarioaren zerbitzura jarri zuten (bloke dominatzaileko burgesia hegemonikoaren interesen alde), enpresak fusionatzea sustatu zuten, politika publikoak interes pribatuetara bideratu zituzten, eta zerbitzu publikoen merkantilizazio-prozesu masiboa hasi zen. Konpromiso historiko horren adibide nabarmenenak ditugu Euroa moneta bakar gisa ezartzearena eta Europako Banku Zentralaren sorrera. Eta, azkenik, lan-indarra obediente eta diziplinatuta mantentzeak, errepresioa areagotzea zekarren, eta hala, Europako polizia-eremu bat sortu zen.

2000. urtean hasi zen bigarren fasean, Lisboako Estrategia zeritzon hartan, herri-klaseen eskubideen deuseztapena areagotu zen, burgesiaren hitzetan, “hamar urteren buruan, ezagutzen oinarritutako munduko ekonomia dinamikoena eta lehiakorrena izatera iristeko”. Helburu hori lortzeko, kontra-erreformetan sakontzen jarraitzea erabaki zen, Washington anaia zaharraren bideari jarraiki, herritarren aurkako kontsentsu berri bat sinatuz Bruselan. Kontsentsu haren ondorioz, gastu publikoak murriztu ziren, ongizate estatua pribatizatu, lan-onurak eta onura sozialak murriztu, lan-merkatuak desarautu, erretirorako adina igo... Kapitalaren menpeko sektoreen lorpen historikoei zuzenean eraso egiten zieten neurriak izanik, ez da harritzekoa Lisboako Estrategiaren gako garrantzitsuenetako bat izatea neurri horiek Europako instituzioen esku uztea, hala Batasuneko estatuen onarpena kostata lortu behar izatea saihestuz. EBren esku uzteko sistema hau benetan erabilgarria da Estatu kideek herritarren gainetik aurrez adostutako neurri kaltegarriak martxan jartzeko; izan ere, Estatuaren funtzioa eskumen gehiago duen instituzio baten erabakiak indarrean jartzea dela sinestarazten digute, eta beraz, borroka

espazio horiek eraginkorrak ez direla ondorioztatzen du herriak.

Beraz, Europar Batasuna, burgesen arteko akordio-marko berria, existitzeak ez du esan nahi Estatuak ez dutela funtziorik haren proiektu estrategikoa inplementatzerakoan. Alderantziz, Europar Batasuna Gobernuari erabaki politiko jakin batzuk hartzea galarazten dien kanpo-erakunde autonomo ahalguztidun gisa ikustea, botere dominatzailearen interesen aurka doan aldaketa oro oztopatzeko modu bat besterik ez da. Krisiari aurre egiteko batasun ezak eta Estatu kideek azkenaldiak hartutako politika finantzarioek argi erakusten dute, bai Europar Batasunean bai mundu mailako sistema kapitalistan, Estatuak, bere klase-interesen alde, sektore dominatzaileen tresna politiko nagusia izaten jarraitzen duela. Ez inongo transnazionalak ez inongo instituzioak, ezin du ordezkatu Estatuak, ezta albo batera utzi ere. Estatuak da ordena sozialaren bermatzaile administratibo eta hertsatzailea, jabetza-erlazioak eta kontratuzko erlazioak bermatzen dituenak, eta nola ez, metaketa-markoaren osotasunaren bermea.

Argi dago, estatuak gairik Europa mailako instituzio berriaren aurrean Estatuaren egitura zaharkitua dagoela ikusaraztea klase dominatzailearen operazio ideologiko bat dela, baina horrek ez du esan nahi Europar Batasunak gure bizitzetan eraginik ez duenaren tesia defendatu behar dugunik. Alderantziz, eragin zuzena du, Estatuak ezerean oztopo izan gabe. Zentzu horretan, Europar Batasuna Europako klase dominatzailearen interesen blindaje ideologiko-instituzionala da; izan ere, Estatuak ardurak saihesteko aitzakia bat izateaz harago, gure bizitzetan nahi beste esku-hartzen duen instituzio bat da, zilegitasun falta izugarriarekin, baita formalitate burgesaren kalitate-parametro berberen arabera ere. Hiru ezaugarri horiek ematen diote Europar Batasunari dagokion funtzionaltasun estrategiko guztia.

Beraz, Europar Batasuna milioika pertsonari eta herriei norabide sozio-ekonomiko jakin bat ezartzeko gaitasuna duen instituzioa da, kontuan izanda, horretarako, Estatuak eta Bruselan dabiltzan lobbyez baliatzen dela, norabide hori onartu eta

ikuskatzeko. Hain zuzen ere, Parlamentuak, sufragio unibertsalaren bitartez hautatutako organo bakarrak, lege eta neurriak berresteko edo kontsultarako funtzio soilak izaten jarraitzen du, ez du eskumen legegilerik, eta hori gutxi balitz, ez du ez fiskalitateaz, ez moneta-politikaz, ezta nekazaritza-gaiez erabakitze botorerik ere. Modu horretara, bakoitzari dagokion rola zehazteko erabiltzen diren irizpideei dagokienez, instituzioen arteko jolas konplexu eta susmagarri baten sartzera behartuta aurkitzen da; eta, azkenean, Europako Batzordearen eta, bereziki, Europako Kontseiluaren nahiz ministroen kontseiluaren legegintza-ekinbideen menpe amaitzen du sistematikoki. Botere-banaketa gabeko sare instituzionala, legimititatea emateko funtzioa duen organo txotxongiloa, eta guztia mendearen hartzen duen Europako Banku Zentral ahalguztiduna dira Europaren funtzionamendu antidemokratikorako giltza.



Zentzu horretan, ez da gehiegi esatea Europako burgesia handiak jauzi kualitatiboa ematea lortu duela Europar Batasuna sendotu ahala, herri sektoreen eta herrien dominazio- eta esplotazio-estrategiari dagokionez, batez ere Maastrichteko ituna sinatu eta aplikatuz geroztik. Hain zuzen ere, Europako burgesiak dominaziorako beste tresna osagarri bat egituratu du, eta marko instituzional hori, historian zehar herri-klaseek lortutako eskubide sozialak deuseztatzeaz arduratzeaz gain, neurri gabeko kapital-metaketa-aren etsai eta oztopo nagusia suntsitzera doa pixkanaka-pixkanaka; herriei eta klase zapalduen kontrol demokratikoa ebastera, alegia.

2007ko egiturazko krisia hastearekin batera, areagotu egin ziren dominaziorako eta esplotaziorako markoaren izaera antidemokratiko aipatu berria eta bloke dominatzailearen baitako irabazien dispareko birbanaketak eragindako barne tentsioak.

2. Europar Batasunaren erantzuna 2007ko egiturazko krisiari



2.1. Krisia eta ofentsiba kapitalista

Europar Batasuna klase dominatzailearen interesen marko babeslea dela ikusi ondoren, 2007tik aurrera bete duen rola aztertzen hasiko gara. Ekoizpen kapitalistaren sistemak sortutako krisia indar neoliberalek kapital-metaketa areagotzeko erabilitako tresna bat da. Europako elite ekonomiko eta politikoek testuingurua bera eta herritarren beldurra (enplegua nahiz gizarte-prestazioak galtzeari) erabiltzen jakin izan dute, langile-klasearen aurkako ofentsiba suntsitzaile bat bideratzeko hainbat neurri, erreforma eta lege ezarri. Eta nahiz eta eraso horiei aurka egin eta erresistentzia erakutsi zaien, klase dominatzailearen botere faktikoek, hein handi batean, erresistentzia neutralizatzea eta euren asmoak betetzea lortu dute.

Ofentsiba kapitalistaren *modus operandi*a

Europar, krisi finantzarioak sekulako zor pribatuak eragin zituen, eta zenbait estatuk ezin izan ziren aurre egin hasieratik. Bankuen zorrak ezin zituztenez ordaindu, estatu horiek, burgesia handiaren interesen babesle funtzioa betetzeko, Europar Batasunera jo zuten haren aparatu politiko-

ekonomikoaren bitartez: Troika (Europako Batzordea, Europako Banku Zentrala eta Nazioarteko Diru Funtza). Troikak erreskateak eman zizkien hainbat estatuari, eta estatu horiek zorpetu egin ziren diru publikoa enpresa pribatuetara bideratzeko eta horrela beren interesak babesteko. Eta, noski, Banku horien kudeaketa txarrak eragindako zorra herritarren diruarekin ordaindu da. Horregatik esaten da ez dela zor legitimoa herriarentzat.

Are gehiago, zor hori ordaintzeko, herri sektoreen bizi-baldintzak okerrera egiten ari dira eta langile guztien eskubideak urratzen ari dira. Eta, nola ez, emakumeak kondenatzen dituzte egoera latzenara. Troikak hainbat neurri indarrean jartzea exijitzen du, estatuek zorra ordaintzeko aitzakiarekin. Une horretan onartzen dute estatuek burujabetza ekonomikoa eta fiskala galtzea. Erabakiak nazioz gairik marko batean hartzen dira, eta herri-burujabetzaz gelditzen zen apurra desagertzen da. Erabakimena gero eta gehiago urruntzen da herritarrengandik, eta Europar Batasunak sortutako egituretako teknokratek monopolizatzen dute, langile-klasearen esplotaziorako eta kapitalaren metaketarako diseinatutako estrategia baten baitan.

EUROPAR BATASUNA: ez zaitugu nahi, ez zaitugu behar!

Hala, “austeritatea”ren dogma (Troikaren egiturazko doikuntza programak, azken finean), eta zor ilegítimoaren ordainketaren bitartez, ustezko “ongizate estatua” eraisten eta arpilatzen dute. Langile-klasearen lorpenen aurkako legeak onartzeko aitzakia perfektua da. Adibide gisa, hauek dira Estatu espainolean hartutako neurrietako batzuk:

- Konstituzioaren 135. artikuluaen erreforma
- Lan-erreforma
- Hezkuntza-erreforma (Wert legea)
- Sektore elektrikoaren erreforma
- Abortuaren legea
- Hiritar Seguratasunaren Babeserako Lege Organikoa (Mozal legea)
- Pentsioen erreforma



Bai PPren gobernuak bai PSOEnak hartutako neurri sorta horiek helburu bereberrei erantzuten diete. Troikak exijitutako zorra ordaintzeko “austeritate” programa horiek fase interklasistarekin eta ustezko burujabetzarekin amaitzeko oinarriak ezartzen dituzte. Zentzu horretan, langile-klasearentzako ondorioak suntsitzaileak dira:

- Soldatak bere horretan mantentzea edota jaistea
- Langabezia-tasa igotzea
- Lan-hitzarmenak deuseztatzea
- Prekarietatea areagotzea
- Pobretzea
- Zerbitzu publikoak pribatizatzea
- Etxe-kaleratzeak

- Dominazio patriarkala areagotzea
- Pentsioak galtzea
- Oinarrizko ondasunen eta zerbitzuen zergak eta prezioak igotzea
- Beharrezko osasun-arretarako eskubidea urratzea
- Sarekada arrazistak
- Errepresioa areagotzea
- Tasa judizialak
- Kutsadura eta klima-aldaketa
- Energia-eskasia
- Hezkuntzaren elitizazioa
- Beka-programak eta laguntzak deuseztatzea
- ...

Labur esanda, jabetzarik gabeko langile-masa bat sortzea da helburua, gero eta pobreagoa izango dena, eta esplotatua izateko prest agertuko dena; modu horretara, klase dominatzaileak kapital gehiago meta dezan ahalik eta denbora laburrenean.

Horiek dira krisi finantzarioak eta horren ondoriozko krisi ekonomikoak izandako

kalteak herritar gehienengan. Krisi garaian jazotako ondorio zuzenak, baina, zalantzarik gabe, epe luzera langile-klasearen bizi-baldintzak kroniko bihurtuko dituzten ondorioak eragingo dituenak. Garrantzitsua da aipatzea, herritarren bizi-baldintzak pobretzen diren kasu guztietan, emakumeak direla pobretze hori gehien pairatzen dutenak (pobretzea, zerbitzu publiko eta sozialen gabezia eta prekarietatea). Izan ere, emakumeak dira okerren ordaindutako lanak eta bizitzaren erreproduktzioarako soldatarik gabeko lan gehienak egiten dituztenak (zaintza, garbiketa...).

Gainera, krisiaren ondorioez mintzo garenean, ezin ditugu ulertu estatu bakoitzeko auzi isolatu modura; Europar Batasuneko herrialde guztietan antzeko neurriak jarri dira indarrean, erreskatea egon ala ez.

Estatu frantsesean Hollanden gobernu sozialistak egindako azken lan-erreforma da horren adibide argia. Krisiak bi ondorio nagusi izan dituela esan genezake: alde batetik, demokratikoki aukeratu ez diren instituzioei eskumenak areagotzea politika fiskal eta ekonomikoei dagokienez; eta bestetik, herrialde bakoitzaren gastu publikoa kontrolatu ahal izatea. Hau da, Europako Batzordeko eta Europako Banku Zentraleko teknokratei uztea herriei geratzen zitzaien burujabetza apurra. Kapitala botere ekonomiko-politiko-militar, autoritario eta patriarkarrean oinarritutako sistema bat eraikitzen saiatu da, korporazio kapitalista handien interesen jarraipena bermatzeko.

Orain arte, kapitalismoak Europan izan duen berrantolamenduaren lehen ondorioak ikusi ditugu, baina onartutako neurriek bide luzea dut. Durao Barrosok esan bezala, "iraultza isila" ari da gertatzen Europar Batasunean.

Aurreikus daitekeenez, "oreka fiskala" bermatzeko, gastu soziala murriztera eta pentsio-sistema publikoak pribatizatzea bideratuko dira politika ekonomikoak, baita soldadak eta lan-legeak deuseztatzea ere "lehiakortasuna sustatzeko". Amaierako helburua hitzarmen kolektiboak, kaleratzeak debekatzen dituzten legeak eta negoziaketa kolektiboak indargabetzea eta zerbitzuen liberalizazioa areagotzea da.

Hau da, eliteak adostasun orokorrera iritsi dira, hartu beharreko norabideaz. Eta ez da izango krisiari aurre egiteko aldi baterako programa ekonomiko mingarri soil bat; baizik eta Estatu greziarrari, irlandarrari, portugaldarrari eta espainolari ezarritako politika berberak ezartzea izango da helburua, Europar Batasun osorako erregimen neoliberalaren eredu iraunkor bat garatze aldera.

Grezia

Krisiak gehien kolpatu zituzten herrialdeak, kasu gehienetan bezala, periferiakoak izan ziren. Troikak erreskatatu behar izan zituen, eta ordaindu ezin zen zor horren truke, burujabetza saldu zioten. Hala, Grezia pribatizazioetan, murrizketetan, merkatuaren liberalizazioan... murgildu zen.

Eskuineko gobernuak (Demokrazia Berria) eta zentrokoak (PASOK) onartutako bi *memorandumek* Grezia berehala pobretzea eragin zuten, eta horrek Troikak inposatutako neurrien aurkako borroka-ziklo interesgarri bat piztu zuen.

Herriaren borroka-ziklo hark oihartzun instituzionala izan zuen Syrizan. Alderdiak 2015eko hauteskundeak irabaztea lortu zuen, eta legez kontraktatzat zuten zorra ordaintzeari buruzko erreferendum batera deitu zituen greziarrak.

Orduan erakutsi zuen Europar Batasunak bere benetako aurpegia: greziarrak muturreko egoeran egon arren, Batasunak bere interes ekonomiko eta politikoak inposatu zizkion herrialdeari. Horretarako, Greziako gobernuaren negoziatzaileak mehatxatzeaz harago, herritar guztiei ere mehatxu egin zien, bankuak itxiz eta erreferendumaren aurreko egunetan Grezia *corralito* egoerara eramanez.

Baina, greziarrek irmoki erantzun zuten, eta burujabetza berreskuratzeko ziurtasun osoa erakutsi zuten, nahiz eta horrek Europar Batasunetik eta Eurotik ateratzea zekarren; prest zeuden horren ondorioei aurre egiteko. Uztailaren 5eko erreferendumak emaitza argia izan zuen: greziarrek ez zituzten Europar Batasunak, Nazioarteko Diru Funtsak eta Europako Banku Zentralak proposatutako erreskaterako baldintzak onartzen. % 62,5eko babesa izan zuen eta Oxiak (ezetzak) irabazi zuen Grezia osoan.

Dena den, Greziako gobernu berriak greziarren eskaera horri aurre egiteko zuen gaitasun ezak eta



Europar Batasunaren mehatxuek, “ezetza” “bai” bihurtu zuten 12 ordutan. Hirugarren memorandum bati ateak ireki zitzaizkion, eta zorra ordain zezaten mekanismo guztiak martxan jarri zituzten: murrizketak, pribatizazioak eta herritarren gehiengoaren eskubideen galera.

Testuinguru horretan, Greziak erabat galdu du burujabetza, Bruselatik diseinatutako politiken mesedetara, eta transnazionalen esku gelditu da. NATOren gune estrategiko bihurtu da, eta bai ondasun naturalak bai langile-klasea esplotatu dituzte. Hau da, Europako eliteen kolonia bat bihurtu da.

Horregatik da garrantzitsua Greziari gertatutakoa kontuan hartzea. Bai Europar Batasunaren periferian bai erdigunean onartzen ari diren neurriei adi egon behar gara. Europan kapitalismoak hartu nahi duen bidea marrazten digu egoerak. Herritarren eta parlamentu nazionalen erabakitzeke boterea ebasten ari dira, mendebaldeko inperialismoaren botere ekonomiko eta politikoei emateko.



2.2 Merkataritza librerako itunak, kapital transnazionalaren tresna

Aurrez azpimarratu bezala, halako ofentsiba bati ekiteko, transnazionalizatutako kapital handiak estatu-mailako eta nazioarte-mailako (MB, NDF, MMA) egiturak izan ditu, bere interesak babesteko eta proiektu neoliberalak garatzeko. Nazioarteko

horiek kapitalaren zirkulazio librerako doktrinaren zaindari eta korporazio handien interesen babesle sutsuak dira, merkataritza librerako itunen babesle amorratuak, ideia kapitalista neoliberalak garatzeko eta finkatzeko inplementatutako tresna politiko-ekonomikoak.

Era neoliberalaren aurreko azken 30 urteetan, alde biko itunak eta itun aldeaniztunak ugaritu egin ziren, eta ondorioz, itun horiek sinatutako herrialdeek kalte sozial eta ekonomiko latzak pairatu zituzten, bereziki ekoizpen-garapen txikiagoko herrialdeek (egitura kapitalista inperialistarekiko menpekotasun-posizioagatik) eta, modu orokorragoan, ituna sinatutako herrialdeetako langile-klaseak. Neoliberalismoak eta merkataritza librerako itunek potentzia inperialisten eta horien menpeko herrialdeen arteko egiturazko desberdintasunak areagotu zituzten, baita herrialde bakoitzeko klase dominatzaileen eta zapalduen artekoak ere.

Marko orokor hori kontuan izanda, ondorio honetara iristen gara: TTIP eta CETA azken hamarkadetan indarrean dagoen metaketa kapitalista neoliberalaren logikan kokatzen dira. Horien bitartez, kapital finantzario industrial handiaren aldeko baldintza berriak sortu dira, eta pixkanaka, herri langileen burujabetza ebasteko eta haren interesen aurka egiteko botere eta inpunitate handiagoa eman zaie transnazional handiei.

TTIP

TTIPa Europar Batasunaren eta Estatu Batuen arteko merkataritza librerako itun-proposamena da, eta gaur egun, negoziaketa-prozesuan dago.

Egun, negoziaketaren egoera oso konplexua da. Erresuma Batua Europar Batasunetik ateratzeak negoziaketak konplikatu ditu; izan ere, amaierako akordio bat lortzeko, beharrezkoa da britainiarrek tramite guztiak onartzen jarraitzea. Baina, Europar Batasunetik ateratzen badira, zerotik hasi beharko lukete alde biko hitzarmen berri bat negoziatzen.

Bestalde, Donald Trump Estatu Batuetako presidente berriarekin, negoziaketak pausa egoeran daude, Gobernu berriaren posizioak nola garatzen diren ikusi arte. Orain arte ikusitakoarekin, badirudi ekonomia-politika protekzionistagoan jarri dituela indarrak, eta nazioarteko merkataritza-itunak albo batera utzi dituela. Dena den, ezin da ezer baztertu.

CETA

CETA Kanadaren eta Europar Batasunaren arteko merkataritza librerako ituna da. Kasu honetan, ituna jada berretsita dago, Europako Parlamentuan onartu zen 2017ko otsailaren 15ean.

Beharrezkoa izan da Europako Parlamentuaren onarpena, Belgikako Valonia eskualdeak dokumentuari betoa jarri baitzion iaz, eta bertan behera gelditu zela baitzirudien. Europako Parlamentuak onartu eta ituna berriro mahai gainean jarri ondoren, CETA indarrean jarri da, baina behin-behinean. Nazio eta eskualde mailako parlamentuetako bakoitzaren berrespena falta da, eta hori prozesua tratatzeko beste oztopo bat izan daiteke.

Gainerakoan, CETA eta TTIP ez dira oso desberdinak, eskubideen urraketa berberak erreproduzitzen dituzte. Gainera, TTIPa onartu bitartean, espero da CETA izatea Estatu Batuetako transnazionalen Europara sartzeko bidea.

2.3 NATO, kapitalaren eta Europar Batasunaren adar armatua

Bloke sozialista erori zenetik, NATOk bizirik jarraitzen du; are gehiago, haren ekimen kriminalari kide berriak gehitu zaizkio eta, modu irekian nahiz ezkutuan, esku-hartze militarrek egiteko zilegitasun osoa hartzen duen eremuak ugaritu ditu. Hainbat dira horren adibideak: Jugoslavia ohiko bonbardaketak, 90eko hamarkadan Ekialdeko Europako herrialdeetan kapitalismo basatia finkatzea ahalbidetu zutenak; Irakeko erailketak; Afganistango esku-hartze inperialista eta burututako baliabideen arplatzea... Bloke kapitalista

inperialistaren mundu mailako hegemonia zalantzan jartzen duen oro blokeatzeko blindaje politiko-militarra da NATO.

Testuinguru horretan jasotzen dira, zuzenean, Libiako, Siriako eta Ukrainako esku-hartzeak. Hain zuzen ere, kaosa eta zibilen arteko liskarra sustatuz, NATOren helburua da Estatu Batuek eta Europar Batasunak Errusia eta Txinaren aurka hasi duten borroka geopolitiko basatian estrategikoak diren eskualde horiek ezegonkortzea eta kontrolatzea. Argi dago, beraz, inperialismoaren adar armatua indartzen ari dela ofentsiba inperialistaren hurrengo urrats estrategikoei aurre egiteko.

Libia

NATOren Libiako esku-hartzearekin, inperialismoak kontraeraso basatiari ekin zion, eta fronte estrategiko berri baten oinarri politiko-militarrak ezarri zituen. Libiaren aurkako erasoak lau arrazoi nagusi izan zituen: batetik, joera soberanistak zituen eta aurreikusi ezin zen gobernu bat desegiteko behar politikoa; bigarrenik, herrialde horretako petrolio ebastea behar ekonomikoa; hirugarrenik, aldaketa-prozesuetan murgilduta zeuden ondoko bi herrialdeen (Tunez eta Egipto) artean horma bat eraikitze behar geopolitikoa; eta, laugarrenik, Afrikan base militar bat ezartzeko behar geostrategikoa, proiektu inperialistak gara zitezen Afrikarako aginte militar berezituaren bitartez (AFRICOM).

NATOren eraso inperialista Nazio Batuen ebazpen baten babesean egin zen. NBERen historian lehen aldiz, gatazkaren konponbide diplomatiko bat minimoki aztertu aurretik deklaratu zitzaion gerra herri bati.

Denok dakigu eraso inperialista hark Gadafi Libiako agintaria erail zuela, eta Libia erabateko kaos batean eta erabat suntsituta gelditu zela. NATOk 2011n Libiaren aurka ekindako gerraren ondoren, beste gatazka batzuk piztu dira herrialdean. Jakinekoea da NATOk operazioan zehar armategiak arpilatu izanak Siriako gerra "zibila" delakoa elikatu duela, besteak beste Nigeria eta Sinaiko talde

islamistak indartu dituela eta Mali ezegonkortu duela. Hain zuzen ere, 1991tik aurrera sortutako gatazketako batek ere ez ditu arazoak gudu-zelaian konpondu, are okerrago, tragikoki larriagotu ditu egoerak.



Siria

Siriako Arabiar Errepublikaren aurkako erasoak suntsipena eta kaosaren bidez eskualdeko herrien burujabetza zantzu txikiena ere deuseztatzen eta “Ekialde Hurbil Berria” eraikitzen helburu estrategikoaren barruan kokatzen da. Izan ere, Wesley Clark-ek (Kosovoko gerran NATOko komandante gorena izan zen AEBetako armadako jeneral erretiratuak) 2001eko irailean egindako adierazpenen bidez, inperialismoak posizio estrategikoak markatu zituen, esku-hartze militarra jasango zuten herrialdeak zerrendatu zituenen: Irak, Libia, Siria, Libano, Somalia, Sudan eta Iran.

Siriaren kasuan, honako hauek dira inperialismoa eta haren aliatuak modu agerikoan esku-hartzera bultzatzen dituzten arrazoi nagusiak: bloke sionista-inperialistarekin lerrotatu gabeko estatua izatea (Iran, Libanoko Hezbola eta Palestinarekin harremanak izatea); lurpean gas erreserba handiak edukitzea; mendebaldeko kapitalismoaren gune garrantzitsuetara gasa garraiatzeko igarobide estrategikoa izatea ahalbidetzen duen kokapen geografikoa; eta Asiako potentziekin (Errusia eta Txinarekin) etorkizunean gatazkaren bat sortzeko arriskuaren aurrean posizioak hartzeko beharra. Modu agerikoan egiten dutela esaten dugu, duela 5 urte baino gehiago gatazka hasi zenez geroztik, potentzia inperialistek eta tokiko aliatuek aholkularitza, azpiegiturak, armak eta mertzenarioak

eskaintzen baitizkiete oposizio armatuaren talde erreakzionarioenei, Estatu Islamikoari esaterako. Hori gutxi balitz, Estatu Batuek 2017ko apirilean Siriako Armadaren basea bonbardatu izanak xake-taula baldintzatu du.

Hauek dira helburu geopolitiko garrantzitsuenak:

- Ekialde Hurbilaren kontrola mantentzea.
- Ekialde Hurbileko monopolioak Mendebaldearen aliatuen esku mantentzea (Saudi Arabia, Qatar, Kuwait), batez ere petrolioaren merkataritza. Siria kaosean murgilduta egoteak Iran eta Europa Siriaren bidez lotuko lituzkeen oliobide handia eraikitzea galarazten du, eta hala, erregai fosilen merkataritzaren kontrola Golkoko herrialdeen esku gelditzen da.
- Israel, aliatu handia, herrialde xiiten “mehatxutik” babestea, edo bestela esanda, bere proiektua zabaltzen jarraitzeko bidea irekitzea.

Turkiaren, NATOko bigarren kide indartsuenaren, interesak defendatzea. Turkiaren helburua da eskualdeko liderra izatea eta Magrebetik Asia erdialdeko herrialdeetaraino zabaltzen den sasi-internazional musulmanaren gidari bihurtzea, eta horretarako, NATOren eta mendebaldeko indarren babes osoa du.

Ukraina

Beste behin ere, potentzia inperialistek gerra ekarri dute kontinente zaharrera. Ukrainako gerra Estatu Batuek eta Europar Batasunak finantzatu eta babestutako gatazka bat da, Euromaidan izenekoarekin hasi zena. 1991 urteaz geroztik NATOk Ukraina ezegonkortu nahi izan du Errusiarekin dituen harreman historikoak direla eta, herrialdearen barne zatiketez baliatuz. Euromaidaneko altxamenduen eta Yanukovich presidentearen dimisioen ondoren lortu zen helburua. Ukrainako sektore nazionalista eta neo-faxistek emandako Estatu Kolpearen bidez, EB eta AEBak Errusiaren mugetara iritsi ziren eta eskualdea goitik behera ezegonkortu zuten.

Gobernu berriarekin, herrialdearen egoerak txarrera egin zuen, Krimeako biztanleek Errusiar Federakundeari anexionatzea erabaki baitzuten. Gainera, Ukraina ekialdeko hainbat hiritan, Donetsk, Lugansk eta Jarkov-en esaterako, protestak hasi ziren eta 2014ko apirilean Kiev-eko agintariak “separatisten” aurkako kanpaina bati ekin zioten. Ondorioz, probintzia hauetan erreferendum sorta bat burutu zen, eta eskualde horien independentzia aldarrikatu zuten.

Horrela, ondorengo hilabeteetan Donbasseko Gerra piztu zen, eta gaur egun ere, Ukrainan ezarritako gobernu faxistak lurralde horien aurka borrokan jarraitzen du. Gatazka honek mila hildako, 1'7 milioi desplazamendu eta 1'2 milioi ukrainar errefuxiatu eragin ditu.

2.4 EBren jarrera “errefuxiatuen krisiaren” aurrean

Europar, gure historiako “errefuxiatu krisi” handiena bizi dugu: 2015ean, Eustat-en datuen arabera, milioi bat pertsonak baina gehiagok eskatu zuten asiloa Europar, gehienak Siria, Afganistan eta Iraketik etorritakoak, eta Oxfam-en datuek diotenez, ia 10.000 pertsona hil ziren Mediterraneo itsasoa gurutzatu nahian.

Horren harira, alde batetik, azpimarratu nahi dugu errefuxiatu gehienek goian aipatutako herrialdeetatik ihes egiten dutela, Europako potentziek esku-hartze militarren bidez suntsipenean eta kaosean murgildu dituzten herrialdeetatik, hain zuzen ere. Eta hori gutxi balitz, EBk eta Estatu kideek oraindik ere lehentasunezko harreman ekonomikoak dituzte Turkia eta Saudi Arabia bezalako herrialdeekin, nahiz eta jada publikoki onartu den eskualdea ezegonkortzeko betetzen duten papera (bonbardaketen bidez eta Estatu Islamikoarekin elkarlanean arituz).

Bestalde, nabarmentzekoa da Europako estatu gehienek eta Europar Batasunak berak ere asilo eskariei erantzuna emateko behar larriaren aurrean burututako gestio lotsagarri eta ankerra. Libano

bezalako 5 milioi pertsonako herrialde txiki batek milioi bat errefuxiatu baino gehiago onartu ditu bere lurretan, eta EBk, aldiz, 510 milioi biztanle izanda ere, apenas 160 mila pertsonari soilik babesa emateaz gain (errefuxiatu guztien %14), ez du adosturikoa ere betetzen.

Horrez gain, Europar Batasunak bere mugak ixtea erabaki zuen, eta kosta ala kosta, baita errepresioaren bidez ere, errefuxiatu gehiago sartzea eragotzi nahi izan du, Turkiako estatu zapaltzailearekin egindako akordio lotsagarri baten bitartez Europa izeneko gotorlekua are gehiago blindatuz. Horri gehitu behar zaio EBk Grezia errefuxiatuen guneko handi bihurtu duela, Danimarkak



eta Suitzak haien lurretara heltzen diren pertsonen dirua eta objektuak konfiskatzeko neurriak hartu dituztela, eta Alemania eta Danimarka Europar Parlamentuaren iritziz eredu-garri direla familiak elkartzeko jartzen dituzten oztupoak direla eta.

Milaka errefuxiatu utzikeria hutsean edukitzeak pertsona asko eta asko egoera penagarrian bizitzera behartzen ditu eta, ez zaizkienez haien eskubideak onartzen, egoeraz aprobetxatzen diren mafien eta esplotatzaileen esku gelditzen dira. Emakumeen kasuan, are iraingarriagoa da, haietako asko eskualde sexualak izatera behartzen baitituzte, edo mugan bertan bortxatzen dituzte haiek zaintzeko ardura duten soldaduek.

Bitartean, fronte militarrean, NATOk Egeo itsasoa patruilatzen du errefuxiatuen bila, bero-beroan irteera puntura itzultzeko, eta fronte ideologikoan, Europako instituzio politikek ez dute inolako eragozpenik diskurtso xenofobo eta islamofoboak erabiltzeko.

2.5 Europar Batasunaren izaera antidemokratikotik konplexurik gabeko autoritarismora

Europako langileria hegemonia lortzeko borrokan diharduten munduko finantza-guneen arteko bidegurutze batean kokatua dago. Norgehiagoka horien testuinguruan, izaera militar, ekonomiko eta politikoko neurriez gain izaera ideologikoa duten neurriak ere ezartzen ari dira. Europako kapitalismo monopolistarentzat garrantzia bera du arlo



ekonomiko zein ideologikoan bere boterea berrestea. Lan ildo horren barruan kokatzen da, besteak beste, neurri antiterrorista errepresiboenak, Troikak inposatutako plan ekonomikoak, migrazio politika baztertzailerik eta antidemokratikoak edo Shengen gunearen barruan ezarritako segurtasun protokoloak justifikatzeko diskurtso mediatikoaren inposizioa.

Egungo egoera kontuan izanik, Europak bere hegemonia galtzeko arriskuan izateaz gain, eszena politiko multipolar baten barruan ahulezia nabarmena du, eta ondorioz, Europar Batasuna egoera konpontzeko bideak bilatzen ari da, taktika argi batzuen bitartez: politika errepresiboen eta estatuen arteko segurtasun akordioen gorakada eta merkatuko legeak malgutzeko, Europako monopolio handien irabazi-tasa handitzen dela bermatzeko.

Mehatxu terrorista eta errepresioaren justifikazioa

Merkatu bakarraren eta Euroaren ondoren, EBren hiru ardatz estrategikoetako bat askatasuna, segurtasuna eta justizia bermatzea zen. Azken ildo hori, funtsean, 2001eko irailaren 11 eta gero zorroztu ziren politika antiterroristen bidez gorpuztu da, baita berriki gertatutako atentatuen ondorioz ere (Paris, Niza, Londres, Brusela, Istanbul, Berlin...).

Politika antiterroristen funtzioa hiritarren babesaren izenean justifikatuta dauden eta oinarritzko eskubidek murrizten dituzten kontrol sozial eta segurtasun neurriak biztanleriaren artean zabaltzea izan da. Europako Segurtasun Agendan indarrean dagoen legeria penala eguneratzeko proposamena garatzen ari dira, mehatxu terroristara egokituko dena. Neurri hauek eskumen gehiago ematen diote EUROPOLi (estatu arteko polizia organismoari) eta ustezko segurtasun interesak direla-eta herritarren datuak partekatzea eta bidaltzea ahalbidetuko duen inteligentzia-agentzia bat sortzea dute helburu.

Kontuan hartuta kapitalismoaren makinaria ideologikoa gertatzen denaren kontaketa kontrolatzeaz gain gertatzen denaz KONTATZEN DENA kontrolatzen duela (azken hau komunikabide hegemonikoen laguntzaz), argi dago beldurraren politika sustatzen ari direla. Segurtasun ezaren sozializazio horrek kontrol sozialerako eta oinarritzko eskubideak urratzeko neurriak justifikatzen dituen mehatxu arbitrarioen menpe du biztanleria, ustezko segurtasun berme bat lortzeko. Zentzu honetan, isilpean gordetzen da Europako estatuek jokatu duten papera terrorismo jihadistaren sustapenean, finantzazioan eta garapenean, NATOren esku-hartze militarretan modu aktiboan parte hartuz.

Eztabaida gehien eragin dituen neurrietako bat PNRA da (Bidiarien Datuen Erregistroa), hegazkinez bidaiatzen duen pertsona bakoitzaren jardueren historia bat, afiliazio datuak, bankuko datuak edota bidaia ereduak bezalako datu pertsonalez osatutakoa. Datu horiek hegazkin-konpainiek eskaintzen dituzte eta akordio honetan parte hartzen duten 27 estatuen artean partekatu daitezke. Argi

dago partekatutako informazioak erabilera praktikoa baino, politikoa duela, izan ere, bidaiatzen duten pertsonen jarduera kontrolatzeko datuak alderatzea ahalbidetzen du; mundu mailako kontrolerako mekanismoa, azken finean. Fitxategi hori inplementatzearen aldekoen artean, diskurtso hau erabiltzen dute: *“Gizarteak jakin behar du askatasunaren eta segurtasunaren artean beti dagoela arriskuen analisi bat, eta ikasi beharko dugula askatasun gutxiagorekin elkarbizitzen, mehatxuen mailaren arabera”*. Mehatxu hori, noski, egitura kapitalistek ebaluatzen dute, haien nazioarteko interesak babesteko asmoz.

Frantziako salbuespen egoera, bertako ultraeskuindarren presioei esker izugarri zabaldu dena, eredu egokia da *“nola justifikatu errepresioa babesa eta segurtasunaren bidez”* fenomenoazaltzeko. Estatu frantsesak espresuki horretarako pentsatutako lege eta konstituzio aldaketa sorta bat prestatu du, irailaren 11ko atentatuen ondoren Bush-en kabineteak diseinatutako *“Patriot Act”*

estatubatuarraren antza duena. Neurri horrek, *Loi de Renseignement* izenekoak, *“independentzia nazionala, lurraldearen osotasuna eta nazioaren defentsa”* aipatzen ditu, baita *“terrorismoaren prebentzioa, kanpo-politikaren interes handien babesa eta delinkuentzia eta krimen antolatuen aurkako borroka”* ere. Hori dena hain modu orokorrean adierazita egoteak *“mehatxu jihadistaren”* aurka ez ezik ezkerreko edozein mugimendu eta erakunderen aurka ere erabiltzeko aukera dakar. Lege horren babesean Barne Ministerioaren boterea areagotzen da, eta manifestazio eskubideen murrizketa, susmo hutsean oinarritutako miaketak eta epaile baten parte-hartzerik gabeko etxe barruko atxiloketak ahalbidetzen dira. Ezkerreko militanteak eta muturreko islamismoarekin loturarik ez duten pertsona musulmanak izan dira oinarri xenofoboa duten neurri horien biktima nagusiak.



Estatu espainolean “neurri antiterrorista” sortak lege aldaketak ekarri ditu: Hiritar Segurtasunaren Babeserako Lege Organikoa, lege antiterrorista... Era berean, erakunde terroristako kide izatearen kontzeptua zabaltzen da, eta terrorismoa egotzi dakieke hala definitutako erakunde jakin batean afiliatu gabeko pertsoneri ere. Funtsean, terrorismoaren definizio arbitrarioa zabaltzen da eta zigor neurrigabeak ezartzen zaizkie txio bat idaztea bezalako ekintza xumeei, agerian utziz neurri sorta horren helburua ez dela jihadismoaren aurka borrokatzea, baizik eta disidentzia politikozko ekintzei zigorrak gogortzea.

Neurri horiek erakusten dute Estatuak espero dutela Europako langileriak kaleetan erantzutea. Segurtasuna eta kontrol soziala bermatzeko saiakera obsesibo horrek helburu argi bat du: krisi ekonomikoaren eta hegemonia galtzearen ondorioz Europak egindako proposamen antidemokratikoei herriak emango dien erantzunari legeen zilegitasunarekin irmoki aurre egitea.

Instituzio antidemokratikoak eta hegemonia berreskuratzeko prozesua

Hegemonia mantentzeko, mugak indartzeaz, militarizazioaz eta segurtasunaz gain, beharrezkoa da noski egitura ekonomikoak finkatzea eta kapitalaren pilaketa ahalbidetzen duten neurri guztiak bermatzea.

Europar Batasuneko instituzioek Estatu kideen politika ekonomikoen norabidea markatzen dute, alegia, politika ekonomiko eta sozialen lehentasunei eta gizarte eta lan-eskubideei buruzko irizpideak ezartzen dituzte. Ez da kasualitatea Europar Batasunean ere polarizazio prozesu bat eman izana erdigune (Alemania) eta periferia batekin (Estatu italiarra, espainola eta grekoa). Herrialde horietan lan erreformak burutu dira, Europako Banku Zentralaren eta beste instituzio ekonomikoen agenda markatzen duten Europako monopolioen interes ekonomikoei men eginez, lan merkaturak malgutzeko. BRICS herrialdeak botere ekonomiko eta militar aldetik nabarmentzen ari diren testuinguru multipolar honetan, TTIPa eta CETA Europaren

hegemonia berrezartzeko helburua duten merkataritza akordioen eredu dira.

Haien funtzio geopolitikoa berresteko prozesuan, Europako estatuak, bereziki Alemaniak, Europa mailako armada propio bat eraikitzeke ideia berreskuratu dute. Angela Merkel berak adierazi du Erresuma Batua Europar Batasunetik irteteak (Europar Defentsa Batasuna eraikitzea betatzeagatik) eta Trumpen garaipenak Europa segurtasun propioa edukitzera behartzen duela (boterearen legitimazio saiakera argia). Bere diskurtsoaren barruan, Merkelek baieztatzen du “Bruselak munduan erantzukizun gehiago beregain hartu beharko dituela”.

Ekonomia berregokitzeko eta polarizazioaren aldeko neurri horiek eta segurtasun eta defentsa protokolo bateratuek helburu bakarra dute: Europar Batasuneko eta Estatu kideetako klase menderatzailearen interes ekonomikoak defendatzea, eta Batasunaren hegemonia berrestea arlo ekonomiko eta militarrean.

Potentzia desberdinen rola definitzen dituen krisi prozesu honetan, Europako herri langilea beti da galtzaile, EBren eta estatu kideen interesen menpe dauden estatu gabeko nazioak bezalaxe, interes hauek baldintzatzen baitituzte Kapitalaren Europaren muga barneko bilakaera politikoa.



3.

Zeintzuk dira krisia gainditzeko proposatzen dituzten alternatibak?



Momentu honetan, dokumentu honetan zehar aipatu dugun bezala, Europar Batasuna inoiz ez bezalako krisi batean murgilduta dago, eta ondorioz, posizio historikoak Europako boterea lortzeko lehian hasi dira berriz ere. Hala, ikuspegi hauetako bakoitza espazioak bereganatzen, edo gutxienez, espazioak ez galtzen saiatzen ari da.

3.1 Posizio historikoen gaur egungo apustua

Europar Batasunak 2007an krisia hasi zenetik aurrera eraman dituen erantzunak aztertu ditugu, eta orain, Europan existitu diren lau ikuspegi ideologiko desberdin aipatuko ditugu. Horietako bakoitzak talde eta klase sozial jakin batzuen interesei erantzuten die, ekintza politikoen bidez Europaren etorkizuna planteatzeko forma jakin bat erakutsiz. Lau ikuspegi hauen forma eta gaitasuna aldatzen joan da klase borrokaren garapenaren arabera. Hala, koiunturaren eta momentuko aliantzen arabera, Europako politikaren hegemonia lortzeko gaitasuna izan duten bloke historikoak sortu dira, beste ideologiei gailenduz boterea hartu dutenak.

Bloke (neo)liberala

Bloke neoliberalak, lau horietatik indartsuena, azken 30 urteotan boterea beregain hartu duena da.

Sektore eta zerbitzu publiko gehienek liberalizazioa bultzatu duena izan da, ustezko "ongizate estatua" deuseztatu duen indarra, historiaren amaieraren ideologoa. Europar Batasuna izan da haren tresna garrantzitsuenetako bat eta nazioarteko burgesiak Europako langileria esplotatzeko erregimen ezin hobea ezartzea lortu du.

Krisiaren aurrean hartu dituen posizioak direla eta, langile-klaseak haren politiken aurka erreakzionatu du. Hala ere, neoliberalak nahikoa indar izan dute azken urteotan hainbat herritan sortu diren aldarrikapenen adierazpen desberdinak geldiarazteko: greba orokorrak hainbat herrialdetan (Estatu frantsesa, Portugal...), 15-M deritzona Estatu espainolean, Islandiako iraultza, Greziako erreferenduma... Herritarren erantzuna geldiarazten jakin dute, errepresio, beldur eta indarkeria maila altuaren bidez.

Horrela, ikuspegi honetatik egiten den proposamen bakarra langileriaren gerrikoa estutzen jarraitzea da, odoletan egon arren, eta gehienezko irabaziak ahalik eta azkarren areagotzea. Hau da, herri burujabeen aurkako nazioarteko ofentsiba politiko-ekonomiko-militarrarekin aurrera jarraitzea, haien baliabideak ustiatu eta ondoren sortutako arazoei ihes egiteko, errefuxiatuen kasuan gertatu den bezala. Hitz gutxitan, herriak eta langile-klasea irensten jarraitzea.

Bloke sozialdemokrata

Sozialdemokraziak indarra izan zuen gerra ondorengo urteetan, garai hartan oso zabaldu ziren sektore iraultzaileen aurrean funtzio bakegilea betetzen zuen eta Estatu Batuen onspena zuen komunismoaren aurkako horma gisa. Thatcher boterean zegoela eta Berlingo Harresia erori zenez geroztik, bide sozialdemokratak ekintzarako gaitasun guztia galdu zuen munduko xake-taula berrian, eskuineko sektoreek ezkerak botere erreala galdu ostean ez baitzituzten erreforma txikiak onartzen. Eraso neoliberalak Europan klase-arteko estrategia bat garatzeko aukera suntsitu zuen.

Azken krisiarekin batera, sozialdemokrazia berriz indarrez azaleratu da herrialde askotan, nahiz eta denbora gutxian hainbat proposamenek porrot egin duten eraso kapitalista gainditzeko ezintasuna dela eta. Eredu argiena Grezian dugu, non sozialdemokraziak herrialdearen burujabetza osoa Troikari saldu dion. Herrialdean sortutako frustrazioak milioika pertsonen ilusioa lurperatu du urte askotarako.

Azken urteotan sozialdemokraziak argi utzi duena da egungo instituzio politikoak mugatuta daudela langilearen defentsan erreforma partzialak eginez kapitalismoaren krisia gainditzeko. Kapitalismoaren kontraesanek, batez ere mundu mailan, erakusten duten bezala, demokrazia burgesaren baitan ez dago gizarte berri baten norabidean aldaketa mailakatuak egiteko aukerarik.

Ultraeskuindarren blokea

Neoliberalak krisi ekonomikoaren aurrean egindako kudeaketa txarraz baliatzen asmatu dute ultraeskuindarrek. Bloke hau zokoratuta egon da Bigarren Mundu Gerrako porrotaz geroztik eta urte guzti hauetan ezkerreko geldiaraztea izan da bere funtzioa, behar zenean soilik azaleratuz baina indarrean jarri diren politika neoliberalak eztabaidatu gabe. Abangoardiatzat burgesia nazionalista duen bloke hau azken urteotan suspertu da, kudeaketa neoliberalak eta haren barne- zein kanpo-politikak zalantzan jarritz.

Langile-klasearen egoera latza eta klase ertainaren pribilegio galera aprobetxatuz eta diskurtso misogino eta xenofoboa erabiliz, gizartearen geruza askoren frustrazioei ahotso ematea lortu du. Ezkerrek ez du gaitasuna izan proiektu zehatz eta errealista bat proposatu eta arazo larrienei konponbidea emateko, eta ondorioz, ultra eskuinak bete du hutsune hori. Bestalde, diskurtso gordin eta populista erabiliz, herritarren arazoak konpontzeko alternatiba sorta sinesgarri bat zehazten jakin du. Hala, azken urteotan eskuinerako biraketa baten lekuko izan gara espainiar Estatuan, Eskandinaviako herrialdeetan, Europa ekialdean eta, azkenik, Erresuma Batuan, Brexit fenomenoarekin. Oraindik ikusteko dago zer gertatuko den Estatu frantsesean, baina joera orokorra argi dago zein den.



Ultraeskuindarren blokea neoliberalen boterea zalantzan jartzera iritsi da, eta langile-klasearen bizi baldintza materialetan aldaketa handirik sumatuko ez bada ere, eragin handia izango du arraza, kultura, generoa edo sexu joera bezalako eskubide zibil eta politikoetan. Gainera, jatorri inperiala duten herrialdeen nazionalismo erreakzionarioak norgehiagoka armamentista azkartu dezake eta, aldi berean, mundu mailako langile-klasea are gehiago zatikatuko du, gaur egun oso atomizaturik baldin badago ere.

Bloke iraultzailea

Bloke iraultzaileak ez du burua altxatzeko gaitasunik eduki Berlingo Harresia erori zenetik. Bloke honen eragina oso txikia izan da, beti egon da baztertuta eta jazarria eta errepresioaren kolpeek joko zituzten kanpo utzi izan dute maiz. Erakundearen atomizazioak,

espazio propioa eraikitzeko gaitasun ezak, malgutasun taktiko murrizak eta jasandako porrotak ez gaititu izanak bloke honek oraingoz alternatiba erreala bat ez izatea eragin du.

Hala ere, ez dago Europan herri bakar bat ere sistema kapitalista gaititzeko helburua duten erakunde eta mugimendurik ez duenik. Zentzu honetan, garrantzitsua da kontuan izatea sozialdemokraziak proiektu alternatibo gisa porrot egin izanak bidea zabaltzen diola bloke iraultzaileari bere proiektua aurkezteko, premiazkoa eta ezinbestekoa dena. Benetako burujabetza proiektu batek soilik egin lekiok aurre proiektu neoliberalari eta proiektu ultraeskuindarrari. Horretarako, sektore iraultzailea azken urteotako desbideratze erreformista, ekonomizista eta infantilistek utzitako hutsuneak betetzen hasi behar da eta langile-klasearekin batera haren emantzipaziorako bidea garbitzen hasi.



3.2 Proposamen independentista

Jakin badakigu Europako estatuak herrien kartzela direla. Estaturik gabeko herrien kontzientzia nazionala garatu ahala, eta inperioak (Britainiakoa, Austria-Hungariakoa, Otomandarra...) eta Sobietar Batasuna erortzearen eta Jugoslavia desagitearen (Kroazia, Eslovenia, Bosnia...) ondorioz, Europako lurralde-mapa etengabea aldatzen joan da. Azken urteotan, Europan, hainbat prozesu independentista jarri dira martxan. Bi prozesu independentista esanguratsuenen kasuan, Eskoziaren eta Kataluniaren kasuetan, zehazki, Europar Batasunaren baitako Estatu homologagarri bat sortzearen aldeko apustua egin dute gehiengo zabalak.

Gaur egun, Europar Batasunaren baitako Estatu bat planteatzeak sezesio unera arte bizi izan den esplotazio- eta sakeo-logika berbera mantenduko dela esan nahi du. Zorraren ordainketaren, austeritate-politiken, Batasunaren izaera antidemokratikoaren eta korporazio handien interesen defentsaren ondorioz, argi dago bideraezina dela Europar Batasunaren baitako proiektu emantzipatzaile bat. Argumentu gisa erabili ohi da sektore progresisten aldeko indar-korrelazioa handiagoa izango dela independentziaren ondoren. Nahiz eta estatuz aldatu eta demokrazia burgesean ezarritako parametroen baitan indar-korrelazioa hobetu, nekez lortuko da korrelazio horren baitako kontraesanak gaititzea. Hala, behin eta berriro ikusi izan dugun gisan, ez badira ematen urratsak logika instituzional burgesetik kanpo, ez da egungo markoa gaititzeko gaitasunik izango. Ez badira urrats kualitatiboak ematen, ez da egungo markoa gaititzeko gaitasunik.

Izan ere, argi ikusi da, bereziki 2007ko krisi ekonomikotik aurrera, Europan nazio baten burujabetza politikoari eusteko ez zela nahikoa demokrazia burgesean oinarritutako Estatu bat. Estatu baten independentzia formala erabat baldintzatuta dago gaur egun. Greziako parlamentuak ingelesez onartzen ditu Troiak idatzitako legeak, Montenegro eta Kosovoren independentziak mendebaldeko aliantzaren interesen adibide argiak dira... Gaur egun, ez da nahikoa prozesu independentista bati buruz hitz egitea, independentzia horri definizio zehatzago bat eman gabe. Klase-irakurketarik gabeko proiektu independentista batek ez ditu konpontzen langile-klasearen berehalako arazoak, eta ez du inolaz ere burujabetza bermatzen.

Beraz, langile-klasearen interesak eta burujabetza defendatuko dituen proiektu independentista bati buruz mintzo bagara, beste koordinatu batzuetan garatuko den proiektu batean pentsatzen jarri behar gara, egungo sistema gaitutako duen proiektu batean, hain zuzen ere. Izan dezagun argi sozialismorik gabe ez dela alternatibarik langile-klasearentzat. Hau da, ezinezko apostu bat da, Europar Batasunaren markotik eta Estatu burgesetik abiatuta egin nahi bada.

3.3 “Brexit” fenomenoa

Azken urte hauetan zehar, Europar Batasunaren politiketikiko gaitzespena ikusi da langile-klasearen artean. Lehen keinua Europako Konstituzioari buruzko erreferendumetan ikusi genuen, baina gaitzespen argiena eta nabariena Erresuma Batuan izan da, Brexit fenomenoarekin.



Europako establishment politiko-mediaticoak komeri bezala saldu du EBrekiko gaitzespen hori: nazionalismo atzerakoi eta inperialen trabatuta gelditu den langile-klasearen gaizki ulertu baten ondorio larria izan omen da fenomenoa. Eta, noski, ez dute den-dena esaten; izan ere, xenofobo guztiek Erresuma Batua EBtik kanpora ateratzea bozkatu bazuten ere, bozka hori eman zuten guztiak ez ziren xenofoboak izan.

Sozialdemokraziak, zalantzarik gabe, ordezkatzeko dituen klaseen interesak defendatzen ez dituen eta sekula defendatuko ez dituen Europa bat sortzen lagundu du. Estatu frantsesean, adibidez, Alderdi Sozialista, Emmanuelle Macron presidente eta ekonomiako ministro ohiaren eskutik, sindikatuak suntsitzen saiatu da. Margaret Thatcherren garaiko Erresuma Batua gogorarazten digu horrek. Estatu espainolean ere PSOE izan zen austeritate-politikak martxan jarri zituena. Baina kasurik esanguratsuena, dudarik gabe, Greziakoa da. Syriza greziarrak traizionatu baitzituen memorandumarekin. Kasu horiek guztiek erakusten dute “ezkerra” ez dela gai izan langile-klasearen interesak babesteko. Horrela uler daiteke zergatik onartzen dituen langile-klaseak ultraeskuinaren proposamenak.

Herri-klaseek politika neoliberalak eta horiek aplikatzen dituzten alderdiak gaitzetsiko dituztela iragar daiteke, eta zentzu guttia du horrek; azken finean, haiek sufritzen baitute neurri horien eta, zehazki, kapitalaren eta lanaren mugikortasuna desarautzearen eragina zuzen-zuzenean. Erresuma

Batuko hainbat eskualde lur jota gelditu dira, hango industriak deslokalizatu egin dituzte, eta horrek eskualde horietan langabezia tasa handitzea ekarri du. Lan-mundua desarautzeak eta babes soziala deuseztatzeak ezegonkortasun handia eta lanerako segurtasun falta eragin dute. Berezik Blair-en eta Brown-en Gobernuak politikak izan ziren EBrekiko gaitzespen orokortu horri hasiera eman ziotenak.

Beraz, argi dago Erresuma Batuan langile-klasea ultraeskuinaren apustuaren alde egitera bultzatu duena, ez dela izan sektore kontserbadorearen politika-sorta xenofobo eta erreakzionarioa soilik. Kontua da eskuinaren eskutik ikusi dutela ordura arte langileen bizi-baldintzak okertu dituzten politikak aurre egiteko ustezko alternatiba bakarra. Arazoa ez da langile-klasea ezjakina izatea ala ez, batzuek hori sinestarazi nahi izan badigute ere; arazoa da bizi-baldintzak hobetzeko aurkezten zaion alternatiba nahi duela, eta aukera hori ikusi duela alternatiba bakartzat.

4. Ondorioak eta lan ildoak



Ikusi dugun bezala, beraz, Europar Batasuna sozialismoa geldiarazteko eta kapitalismo europarra indartzeko tresna gisa sortu zen eta, ordutik, burgesiaren klase-interesen arabera antolatzen da jendartearen egitura. Bizitzako alderdi guztien merkantilizazioa eta lehia ardatz, herrien burujabetza zalantzan jarri eta menpekotasun-sistema konplexu bat jarri du martxan. Kapitela metatzen eta zentralizatzen dela bermatzeko eta herritarrak alienatzeko, behar beste tentakulu darabilte; tentakulu militarrek, ekonomikoak, politikoak, ideologikoak... eta agerikoak dira herri langilea jasaten ari den ondorioak: lan eta bizimodu prekarioak, oinarritzko gizarte-zerbitzu publikoen eta baliabide kolektiboen pribatizazioak, emakumeen esplotazio bikoitza, komunikabideen manipulazioa, esku-hartze eta eraso inperialistak, jazarpena, errepresio polizial-juridikoa... Europar Batasunaren markoaren baitan, Europako oligarkiek haien interesen menpe erabiltzen dituzte sortutako instituzio estatal zein Europarrak.

Baina Europar Batasuna zalantzan jarri da, eta ez ezkerretik, eskuinetik baizik. Zeresan handia emango dute datozen Frantziako eta Alemaniako hauteskundeek, hein handi batean, Europar Batasunaren etorkizuna zehaztuko baitute. Eskuineko sektore nazionalista kontserbadoreek Europar Batasunaren politika liberala eraldatzeko asmoa aldarrikatu dute, Europar Batasunetik ateratzeko deia ere egin dute batzuk. Eta ezkerrean, horren aurrean, atzean gelditzen ari da, ez da eskuineko nazionalismo kontserbadoreen eta liberalen arteko talkaren erroetara iristen, eta ez du asmatzen Europar Batasunaren krisiari eta egiturari

berari aurre egiteko eman beharreko debateei heltzen. Noraezean dabil, zailtasunak ari da izaten teoria eta praktika eraginkor bat eraikitzeke, eta eskuin kontserbadoreak gain hartu dio. Ezinbestekoa zaigu eman beharreko eztabaidak identifikatzea eta, koiunturaren analisi egoki batetik abiatuta, oinarritzko hausnarketa estrategiko bat egitea.

Europar Batasuna ezin da barrutik aldatu, jatorriz da kapitalaren metaketarako bitarteko, horretarako sortu dira haren baitako instituzio eta lanabes guztiak. Eta horretan jarraituko du, Europako burgesien interes kapitalista eta inperialistak defendatzen. Konponbidea ez da etorriko Europar Batasunaren eraldaketa demokratikoa garatzen. Ezin da barrutik aldatu, ezin da Europar Batasuna demokratizatu. Klase dominatzaileen interesak defendatzeko soilik jaio zen, eta hala izaten jarraituko du izaten, suntsitzen den arte.

Beraz, Euskal Herritik, argi dugu Europa langile-klasearen interesen arabera antolatu nahi badugu, gaurdanik hasi beharko garela bultzatzen hori lortzeko behar ditugun tresna eta aliantzak:

Horretarako, lehenik, ezker mugimendu iraultzailea antolatu eta indartu beharra dago, kapitalaren Europaren eta mendebaldeko inperialismoaren aurka egin nahi badugu.

Bigarrenik, fronte desberdinetatik datozen Euskal Herri langilearen aurkako erasoak (politikoak, ekonomikoak, antisozialak, muturreko eskuina, inperialismoa, patriarkatua, arrazismoa...) geldiarazteko jarri behar ditugu indarrak eta

EUROPAR BATASUNA: ez zaitugu nahi, ez zaitugu behar!

kontzientzia kolektiboa garatzera bideratu helburuak. Ofentsiba kapitalistari aurre egin behar diogu.

Hirugarrenik, konplexuak albo batera utzi eta ezkerretik euskal langile-klasea Europar Batasunaren aurka jarri behar dugu. Gure antolakundeen praktika politikoa Europar Batasunaren kontra jarri behar dugu.

Laugarrenik, beste herri langileekin esperientziak trukatu behar ditugu, eta helburu komunak finkatuz, borrokak uztartzea dagokigu.

Azkenik, eta maila estrategikoan, burgesiaren klase-interesen kontra arituko den beste gizarte eredu baten alde, elkartasun internazionalistan eta langile-klasearen interesen defentsan oinarrituko den Europa eraiki behar dugu. Horretarako, jendarte

burujabe eta sozialistak garatzeko estrategiak pentsatzen jarri behar gara. Errotiko zapalkuntzek errotiko aldaketak behar dituztelako.

Bukatzeko, korrelazio indarrak gure aldera ekartzen ditugunean, kapitalaren Europari beste integrazio eredu batekin aurre egin ahal izateko, gaurdanik pentsatu beharko dugu eraikuntza-prozesu horren norabidea. Herri burujabez, sozialistaz, feministaz eta internazionalistaz osatutako europar integrazio bat bultzatzeko, aliantzak eraikitzen eta behar diren tresnak sortzen joan beharko dugu.

